

Josu Jon Imaz

EAJko Europako parlamentaria

Espainiar alderdiak norgehiagoka

■ Otsailaren 5ean Belgikar Estatu Kontseiluak hartutako erabakiak Gobernu Espainiarraren erreakzio sutsua eragin du. Belgikako epaile erakunde gorenak Moreno eta Garcia ustez ETAkideak diren horien estradizioari uko egiteak Bellochen erantzun bizia ekarri zuen. Erre-sumaren hiriburuko tertuliakideek ezer gutxi aipatu dute ukapen honen arrazoiari buruz.

«Taldea armatuari laguntza ematea» izan zen Belloch jaunak gidatzen dituen zerbitzuek agertzen zuten delitua Belgikar Estatuari estradizioa eskatzeko garai. Txapuz nabarmena. Delitu horrek ez du isladarik inguru horietan. Baina ez dezagun pentsa hau Belgikan bakarrik gertatzen den bitxikeria denik. Holandar legegizon ezagun batek orain aste batzuk zionaren arabera, moeta honetako eskaerak ez zuten inoiz harrerarik izango bere Estatuan ere.

Bat nator Europar inguru judizial amankomunaren behararekin. Schengen-eko akordioak derrigorrez era honetako garapena beharko luke. Zentzugabekeria litzateke mugaren irekitez prozesu bat bultzatzea, era berean delituen eta estradizioen espazio edo gune amankomun bat garatuko ez balitz. Baina hau lortzeko bide bakarra akordioarena, errespetoarena eta elkar-konfidantzaarena da. Bellochen erreakzioak, eta ondoren Europar Parlamentuaren PSOE eta PPK bultzatutako erresoluzioaren onarpenak ezer gutxi laguntzen du honetan.

Hala ere egun hauetan beste bitxikeria bat gertatu izan da, eta gure inguruko komunikabideetan islada gutxi izan duena. Batez ere Moreno eta Garcian estradizioaren gaiak izan duenarekin konparatuz gero. Europar Parlamentuak erresoluzio hura onartu eta handik ordu gutxietara, Espainiako Entzutegi Nazionalak uko egin zion Alemaniak eskatutako Otto Remer nazi ohiaren estradizio eskaerari.

Gogora dezagun Remer, 1994ko ekainean Espainian atxilotua, Hitler-en segurtasunaren arduraduna izan zela nazismoaren garaian. Ezezkoren arrazoiak honela dio: nazismoaren alde aritzea ez omen da delitua Estatu Espainiarraren legeetan, eta estradizio bat gauzatzeko gutzitik beharrezkoa omen da errudunari leporatzen

Hobe izango luke Espainiar gobernuak bere ekintza judizialen prestakuntza hobetuko balu. Eta zergatik ez, giza eskubideei zor zaien errespetatuaren betetze horretan saiatu

zaion delitua bi Estatuetak lege-rian jasota egotea. Zera da, Belgikako Estatu Kontseiluak argudio bezala erabili duen berbera. Ez al du honek Espainiar Gobernuaren erreaktziorik sortu? Ez al ditu Espainiar Gobernuak erakunde judizialaren arduradunak presionatu behar Belgikari eskatzen dion erabaki aldaketa bera lortu ahal izateko? Itxurajakia gehiegi.

Bestalde, azken aste honetan Westendorp ministroak orain arte agertutako histeria maila gehitu du. Espainiak ez omen du Europar Batasunaren erreformarako ituna baieztatuko «ez bada judizial

kooperazio maila gehitzen Estatu kideen artean». Mehatxu hau zentzugabekeria huts bat besterik ez da. Kooperazio maila horren hobekuntza behar-beharrez Estatuaren arteko gailur horren helburu nagusi bat izango delako, hala definitzen baita azken hilabeteetan prestatuak izan diren dokumentu eta proposamen guztietan. Europar Parlamentuak berak, orain hilabete batzuk ere politika honen komunitarizazioa, hirugarren zutabea deritzona, proposatu zuen gailur honen helburutzat. Beraz, ongi daki Westendorp jaunak berak botatako hordagoa konponbidean dagoela.

Hemendik hamabost hilabetetara, Maastricht-en erreforma aztertu behar duen gailurra bukatzen denean, Espainiar Gobernuak botatuko mehatxua gutzit ahaztuta izango dugu. Westendorp berak ere beharbada beste funtzio batzuk izango ditu orduko. Hala ere ez dut uste berak eta Bellochek osatutako tirabira guzti honetara Europar Batasunaren oinarri balioko duenik, ezta ere Estatuaren arteko kooperazioa bultzatzeko beharrezkoa den konfidantza maila gehitzeko.

Guzti hau sasisu bat besterik ez da izan, hauteskundeetan lau boto aktibatzea helburutzat duena. Hobe izango luke Espainiar gobernuak bere ekintza judizialen prestakuntza hobetuko balu, honelako lardaskeriek bere kanpo irudia gehiago zikindu ez dezaten. Eta zergatik ez, giza eskubideei zor zaien errespetatuaren betetze horretan saiatu. Ez dut uste azken honek antzeko gaietan Espainiari kalte egingo liokeenik. ■

Txillardegi



Chiapas berriro

Le Monde Diplomatique-ren *Manière de voir* 29-ak artikulu luze bat dakar Chiapasiko egoeraz: *Ombres de guerre sur le Chiapas* (Maurice Lemoinek idatzita).

Dena errepikatzea ezina da. Laburtzea ere, arriskugarririk. Omena, ahalean, artikulu bera irakurtzea.

Ohar pare bat egin nahi nuke, halaz ere. «Edonon miseria nagusi», dio Lemoinek. Eta honetatik hasi behar da, dudarik gabe.

Zapatisten indar harrigarria ere azpimarratu beharra dago: Chiapasuko udalen % 50 ia-ia kontrolatzen du EZLNk.

Baina prentsa *ofizialak* ahantzi ohi duen alderdia azpimarratuko dut nik: zapatistena *est une armée de paysans indiens, laborari indioz osatutako herri-harmada* bat. Eta Lemoineren beraren hitzez esateko: «Bai gerlakoan bai bakean, *mogimendu india* gailen».

Mexikar armada *federalak*, Guatemalarekiko mugan kokatu du bere gotorlekua. Mugaz bi aldeetan mayatarrek baitaude.

Oraindik adierazgarriago: «Indigenak —dio Lemoinek bere hizkeraz— elkarreditzen dira *beren hizkuntzaz*, barre egiten dute beren artean; eta gero beretako batek, guri begira, hau dinosku *espainieraz serio-serio*... Zapatistak indioak dira; ez *campesino* soil eta abstraktoak.

Gobernari iraultzaileari, bestalde, Abendaño deritzo! Zein euskaldun ez da portuko?

Ramon Labaien



Nazioaren ordezkari

Hauteskunde bezpera eta atsedean. Bazen garaia, denetarik pittin bat entzun ondoren, buruan sortutako nahasketak txukuntzeko. Asteazkenean eta Zaragozan, ez zen argi ikusten. Zezen Plazako hura, Julio Iglesiasen hitzaldia zen edo Aznarren kantaldia. PP eta alprojakeria, horra hor falta zitzaigun bikotea, Gonzalez eta Antonio Banderasek osatzen dutena borobiltzeko. Bi kasuetan eta besteak beste, bi arrazoi ez PPri eta ez PSOeri botorik emateko. Eta bitartean komunikabideez zapalduak, Euskal Herriaren errealitateak babesten. Azpimarratuz zergatik botoa eusko alderdiei eta zertara goazen Madrilera, ikusi Aznar izanen dela hurrengo Monklon edo Felipe beste lau urterako, eta batetik edo bestetik hain gutxi dugula esperu. Ez goaz Kastillako eskoletan zer erakusten duten miatzera, edo gure iritziak Andaluzian inposatzera. Bai ordea, Estatuak gure izenean hartzen dituen erabakiei, zikin direnean, frente egiteko. Gure izardiarekin lortzen dituztenetan, kontuak exijitzeko. Eusko alderdiak ez doaz Madrilera alderdi bezala, baizik ere Nazioaren ordezkari gisa, beraien han egoteak zentzurik izanen badu. Botoa ba eusko alderdiei. Eta horietarik egokiena, bere alderditasuna zokoratuz. Madrielen Nazio bihurtzeko gauza dela gehien azaltzen duena. Benetan errexu dugu aukera.

L A P h I T Z A

